

Gipuzkoako medikuok ere eskatu dugu Covid 19 inokulazioak berehala eteteko:

Gaur goizean, hainbat medikuk gutuna helarazi diegu Gipuzkoako Sendagileen Elkargoari eta Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialari, Covid 19aren aurkako bosgarren dosiaren txerto-kanpaina berehala etetea eskatzeko. Bizkaiko beste hainbat medikuk joan den irailaren 20an egindako eskaerarekin bat egin dugu hortaz, Osasun Sailari eta Bizkaiko Medikuen Elkargoari eskutitz berdina helarazi baitzieten.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoari eta Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialari zuzendutako gutuna:

Presidente andrea:

Behean sinatzen dugunok gure erabateko arbuioa adierazteko idazten dizugu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sustatzen duen COVID 19aren aurkako hurrengo txerto-kanpainaren aurrean (5.a dagoeneko!). (Osakidetzak udazken honetan errepikatuko du gripearen eta COVIDaren aldibereko txertoa arrisku taldeetan, 2023ko abuztuaren 12ko Deia berria).

Garbi frogatuta dago gaixotasunaren aurka ez babesteaz gain, ez dituela bere sintomak arintzen, ezta transmisioa eragozten ere, eta are okerragoa dena, txerto honek patologia larri asko eragiten dituela, bat-bateko heriotzak, tronbosia, herpes zoster, iktusak,... ARNm metodologiaren bidezko txertoa deritzona oso arriskutsua da eta segur aski azken bi urteetako gehiegizko hilkortasunarekin lotuta dago, baita hainbat patologia baskular, kardiako eta neurologikoren agerraldiarekin ere. Horiek sakon ikertu dira herrialde batzuetako hainbat argitalpen epidemiologikotan eta, haien emaitzak ikusita, zenbait herrialdetan, Danimarkan eta Suitzan kasu, mota honetako txertaketa debekatu egin dute.

Era berean, ez dugu nahi gure lankideek txertaketa-politika jarraitzerik txertoer buruzko araudia kontuan hartu gabe. Izan ere, txerto horiek medikuek soilik errezeta ditzakete, eta betiere pazienteak Baimen Informatua sinatu ondoren. Pandemiaren larrialdiak ez gaitu salbuesten pazientea EZ KALTETZEKO gure misioa betetzetik.

Azken urteotan gertatutakoari buruzko azterketa gehiago behar direla jakitun izanik, eskutitz honen edukia Elkargoaren kolegiatuei bidaltzea eskatzen dizugu, osasun iatrogenia hau gelditu behar dugulako.

Jaso ezazu gure agurra.

Donostian, 2023ko urriaren 6an.

Sinadurak:

Koldo Aso Medialdea, kolegiatu zkia. 202003399

Ricardo Arriola López, kolegiatu zkia. 202003855

María Jesús González Larrañeta, kolegiatu zkia. 202003515

Ion Mirena Anasagasti, kolegiatu zkia. 202002589

Carmen Marcos Resondo, kolegiatu zkia. 484805971

Iñigo Altuna Echeverría, kolegiatu zkia. 202004326

Esther Sagredo Manzanedo, kolegiatu zkia. 484805074

M^a del Coro Goitia Ispizua, kolegiatu zkia. 48486536

Esther del Rosario Molinares Rodríguez, kolegiatu zkia. 28-4810641

Luis Goenaga

Maidier Leunda Iruretagoiena, kolegiatu zkia. 202007451

Arturo Vinuesa Saenz, kolegiatu zkia. 3105725

María Jesús Balbás Cisneros, kolegiatu zkia. 20202155

Juan José Martínez Rodríguez, kolegiatu zkia. 202003256